

Mutiko baten haurtzaroa Mendiben 1920-1930 hamarkadetan

E.: ordian Beñat Urruti egun on, xu beraz mila beazieun ta hoita lauean sortia xira otsailian.

B.: otsailain hoita iruan.

E.: Mendibeko familia batian, laborari etxe batian. Ordu haietan, familia haundiak zitxun, eh?

B.: ba, gu bagintxun zortzi, nik zautu utanak enekin zortzi ta hiru ttipian hilak zienak, hek ez txit zautu, hameka denak. Denbora etan anitz haur bazuxun familietan.

E.: Mendiben ezautu txu familia haundiak.

B.: bo, geientsienetan sei-zazpi, zortzi, ola, baziren, denbora etan.

E.: eta ordu haietako etxaldeak nolakoak ziren, zer zen laborari etxe batean?

B.: ba, bazuxun dentaik kotsia, ez oaiko nonbrian, gutixo, gure etxea etxe ttipia baitzen, hamar dozena behi, ta ehun bat ardi, ta olaxe, zaldi zonbait, ta mandoak e bazitxun, ta olaxe.

E.: ta gero seurrenik poalleria...

B.: a ba, ba, horik ba, denak etxeakoak, etxeako gauzak, ba, iten zuxun arto puxka at, iten zuxun ogia re, ta ola.

E.: denak eskuz eta zaldiekin.

B.: ba, ba, gero batusa pasatzen zuxun ogiaen iteko, bihitzeko, ta auzoko jendekin, eta elgar launtzen ta ola, egun etxe atian, biar bestian, ta ola iten zuxun ogi-joitiak eta leeno, etxe geienetan iten zuxun Mendiben e, ogi-joitiak ola, ogi puxka at, etxeako ogia.

E.: eta gero irina egiten zuxun etxean?

B.: irina eiaaraat eremaiten ogia, ta han irina ekar eta iten ogia etxean, amak iten zien labian, aste guziko ogiak. Gero iten zen artoa re, artoa, mestura erten ginin guk ordian, hua erre labian ogiekin batian, ta geo aste guzikoa iten zen ua.

E.: astian behin?

B.: iakoitz guziz. Bear zen egurra bildu, eta bear zen labia berotu, ta gero ogiak sartzen zitien amak, ori amaen lana zen ori iakoitz guziz.

E.: eta eskola, eskolarat...

B.: eskolan ni guti, zortzi urtetan asi ta ameka urtetan gelditu, gero mendirat ardiekin ta ola. Guk eskolan ez xiu kasik deus e ikasi. Gure denboran baginixin errient bat, ta animaleko haur aldia bazuxun, ta bear zien, errientak in bear zien haundiak eta ttipiak, eta denak, eta guri guti eakutsi zin ttipier, haundi ekin ari zen eta geio gurekin bano, ta ola, guk ez du biziki kasi eskolan, doi-doia ixkiatzen, ta ola.

E.: leitzen puxiño at?

B.: leitzen e ba puxka at, eta ola.

E.: maite xinien eskolara joaitia?

B.: be, gure etxetik bear zen oren erdi baten bidia, bear zen uñez joan, eskola frango urrun zen guretako, gure etxia mendian baitzen. Maite, ba, ba, naio gelditu, ta kontento ginen, ba, ara.

E.: eta goizetan baskariarekin joaiten zinezten etxetik?

B.: ez, auzo atian amak eremaiten zitien salda iteko gauzak eta auzoko etxekandere ak iten zien guetako saldak eta zera, ta goizetan jatekoak eremaiten gurekin eremanik, eta hak berotzen zitien, salda iten zien, ta ola, han jaten gindien. Ba, eskola gue etxetik urrun baitzen.

E.: eta erten duxularik ainitz haur zinezuela, zonbat ze... berrogoi bat, berroita amar bat?

B.: ba, seurro, berroita amar bat ba berdin.

E.: eta denak Mendibekoak?

B.: ba, ba, ba, denak Mendibekoak, ta denak, anitzak, anitzak etxeak mendian ziuztenak or, emen Iratirateko bide bazter ortan bi aldetaik or bazien, hortik joaiten zienak haat beeiti, horik ere bazuten bide puska at joaiteko.

E.: eta jokoak eta errekreazione denboran eta zertan artzen zinezten?

B.: ba, ordian bazien billak, kanikak, eekilan, xilo bat in eta artan zoinek irabaz, eta ola, ta geo, defendio ginien eskuaraz mintzatzia, bear ginien frantsesa mintzatu, ikasteko joanak baiginen frantsesain, ta errientak atzemaiten bagintien, ordian, ez zen kontent errienta, bear ginien, guk frantsesik ez jakin, ta eskuaraz gure artian errekreazionian ta asten ginen, bana geo beharko ai izan frantsesez, ara.

E.: ta ze gertatzen zen? Xiria pasatzen zinutena?

B.: ez niz oit ez ordian nola zen, bana larderia at zen ba, ez zela bear mintzatu, ara.

E.: eskola publikoa zuxun?

B.: ba.

E.: beraz, elizatik berex. Elizatik berex.

B.: ba, ba, ba. Ba, publikoa nik ez baitakit zer nola erten den.

E.: laikoa.

B.: laikoa. Ez zen ordian beste zerik, eskolaik, ez zen eskuaraik ez deus e ordian ikasten, geroztik dira oriek guziak eakusten.

E.: ta ordian katixima etxean egiten zinuten aitatxi-amatxiekien?

B.: ikasi ba, ta geo ostegun guziz katiximaat, elizaat, ta elizan bear ginien ikasi etxean, ta ostegun guziz, beatziak... Beatziak t erditako joan bear ginin aat, ta eguerdi artio katixima, apez bat baginin iziarri bortitza, ez zen aikin, bear zen ixi-ixila egon, ara, orduko gure zera. Oaiko apezekin frankilo ai dira ba oaiko aurrak.

E.: eta kominionia egin xinien?

B.: ameka urtetan. Ta geo ameka urtetan in, eta eskolatik gelditu, ta gero etxean, kabalekin hola, ta mendian.

E.: eta kominionia zer zen, familiako elgarretaratze bat?

B.: kominione haundia, kominione ttipia iten zen zortzi urtetan edo doaike, bo oai bezala doaike, ta gero kominione aundia iten zen ameka urtetan.

E.: meza, bezperak...

B.: meza, ba, ba, ba.

E.: ta geo zer, baskaria etxean?

B.: geo familian baskaria, oseba ta tanta ta oriekin, biltzen ordian jendiak.

E.: eta zerbait emaiten zena hurrari ordian?

B.: ba, ba, ez biziki ez, hogoi sos eta berrogoi sos eta ola, ez zen oai bezala hamar euroka, sos, zantimak, zantima zombait, olaxe, ez baitzen sosik gure denboran, ez zen sosik.

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika
Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy
Doktorego-tesia Gasteiz, 2021
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila
Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa
Letren Fakultatea
UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.
Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala